



ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

CIFP ZORNOTZA LHII

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. C.I.F.P. ZORNOTZA L.H.I.I.ren izendapena, irakaskuntzak, ezaugarriak, helburuak eta eginkizunak.

1. CIFP ZORNOTZA LHII Lanbide Heziketako ikastetxe publikoa da, ikastetxe integratuen sarekoa, eta bere prestakuntza-ekintzetan barne hartzen ditu hasierako prestakuntzari dagozkion irakaskuntzak, langileak laneratzeko eta birlaneratzeko ekintzak eta bizialdi osoko ikaskuntzako ekintzak, langile landunentzat zein langabeentzat. Prestakuntza-ekintza horiek ikasturte bakoitzean planifikatuko ditu Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak. Gainera, unean-unean aplikatzekoa den indarreko araudiaren arabera dagozkion zerbitzu, ekintza eta abar emango ditu.

Ikastetxe integratuek, lanbide ikasketak egiteko diren famili edo arloez gain, lanerako informazioa eta orientazio zerbitzuak ezarriko dituzte. Eta, indarrean dagoen araudia aintzat hartuta, ikasketa ez arautuen nahiz laneko eskarmentuaren bidez jasotako konpetentziak ebaluatuko dituzte. Ebaluaketa hau, nazio mailako kualifikazio eta lanbide heziketako sistemaren markoari atxekituta egingo da.

2. CIFP ZORNOTZA LHIIk ezaugarri hauek ditu: plurala, elebiduna, demokratikoa eta, euskal gizartearen beharretara izanik, inguru sozial eta kulturallean sustraiturik egotea. Era berean, parte-hartzea bultzatzeaz gain, desberdintasunak orekatu eta aniztasuna zaintzen ditu.

3. CIFP ZORNOTZA LHIIk bere egin ditu Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.2. artikuluko 46/2014 Dekretuan ezarritako xedeak. Hori dela-eta, pertsonen garapen profesionala bultzatzeko egiten du lan:

a) Pertsonak bizialdi osoan kualifikatzea eta birkualifikatzea, lanbide-heziketa modular, malgu eta kalitatezkoaren eskaintza bat ezarriz, herritarren eskarietara eta produkzio-sistemak sortutako beharretara egokitua, pertsonen enplegurako sarbidea erraztuko diena eta jardunean dauden langileen lanpostuaren kontserbazioa, hobekuntza eta mugikortasuna erraztuko dituena.

b) Lanbide-informazioko eta -orientazioko zerbitzuak ematea pertsonen, beren lanbide-heziketako aukerei eta premiei buruzko erabaki egokienak har ditzaten, bizi diren produkzio-inguruneari dagokionez.

c) Hala badagokio, pertsonen lan-esperientziaren bidez edo prestakuntza-bide ez-formalen bidez eskuratutako gaitasunak ebaluatzen eta egiaztatzen laguntzea.

d) Lankidetzaren espazioak ezartzea lanbide-heziketako sistemaren eta produkzio-ingurunearen artean, berrikuntzaren esparruan proiektuak eta ekintzak garatzeko, bai eta bizialdi osoko ikaskuntzaren kultura zabaltzeko ere.

e) Lanarekin txandakatutako lanbide-heziketaren eredia bultzatzea.

f) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzea, dimentsio guztietan: prestakuntza, antolaketa eta lana.

g) Pertsonen mugikortasuna sustatzea lanbide-kualifikazioen Europako esparru bateratuan.

h) Herritarrengan berritzeko eta ekiteko gaitasuna sustatzea.

i) Lanbide-heziketako eredu baten alde egitea, baliabide eta bitarteko naturalen kudeaketa jasangarria jarduera eta enplegu berriak bultzatzeko aukera izan dadin, eta produkzio-eredua aldatzea eta eredu horretan erreferente berriak eratzea bultzatzea.

j) Sozialki iraunkorra den hazkunde-eredu bat eratzen laguntzea, aukera-berdintasunaren eta gizarte-kohesioaren sustatzaile eta bermatzaile den aldetik.

k) Gizartean laneko segurtasun eta osasunaren arloko prebentzioaren kultura garatzea eta sendotzea. Ikastetxeko gobernu-organoak, partaidetza-organoak eta koordinazio didaktikorako organo guztiek, baita, irakasleek eta ikastetxeko beste langileek ere, goian aipaturiko helburuak betetzera bideratuko dute euren jarduna.

4. CIFP ZORNOTZA LHIIk bere kudeaketa modeloa etengabeko hobekuntzan zehaztuta, eta ondorengo arauen bitartez ziurtaturik dauka: ISO 9001, ISO 14001. Kudeaketa Sistema Integratuan zehaztutako prozesutan dago egituratuta.

5. CIFP ZORNOTZA LHII-k, ikastetxeko bizikidetzaren oinarri gisa, bere eskubideak arduraz bete eta gainerakoen eskubideak errespetatuko dituela agintzen du.

6. CIFP ZORNOTZA LHII-ren helburuak eta eginbeharrak indarrean dagoen araudian ezarrita daudenak izango dira eta, zehazki, apirilaren 1ko 46/2014 Dekretukoak; 2014ko apirilaren 7ko EHAAn argitaratuak izan zirenak.

7. CIFP ZORNOTZA LHII zuzendua izango da pedagogiaren, antolaketaren eta kudeaketaren arloetan autonomia izanez. Beraz, indarrean dagoen araudia aintzat hartuta antolaketarako, pedagogiarako, ekonomia-kudeaketarako zein pertsonal-kudeaketarako autonomia izango du.


I. TITULUA. CIFP ZORNOTZA LHIIko ANTOLAMENDU-DEFINIZIOA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

2. artikulua. Gobernu, parte-hartze eta koordinazio organoak

1. CIFP ZORNOTZA LHIIk, gobernatzeko lagun taldeak nahiz behar diren lagun bakarreko aginte-organuak izango ditu. Organo horiek EEPLn ezarritako eskumenak eta eskuduntzak izango dituzte.

- Kontseilu Soziala.
- Irakasleen klaustroa.
- Zuzendaritza-taldea.
- Koordinazio-batzorde teknikoak.
- Tutoreen batzordea.
- Irakasle-taldea.
- Lanbide-arloetako sailak.
- Laneko informazioko eta orientazioko departamentua.



CIFP ZORNOTZA LHIIren organigrama

2. Ikasturte bakoitzaren hasieran, ikastetxeko kide bakarreko organoak LHIIren intraneteko karguen eta eginkizunen dokumentuan islatuko dira.

3. artikulua. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza

1. Gizarte eta Ikastetxeko hezkuntza komunitatearen parte hartzea, CIFP ZORNOTZA LHIIko Kontseilu Sozialaren bitartez egingo da.

2. Badira CIFP ZORNOTZA LHIIaren jardunean, gainera, parte hartuko duten beste organo espezifiko batzuk; adibidez, Euskal Eskola Publikoaren Legean zehaztutakoaz bat etorrira, ikasleen parte-hartze organoa dena.

3. CIFP ZORNOTZA LHII ikastetxeko ikasle-elkarteen egoitza izango da. Ikastetxeak, hartara, lokalak utziko dizkie elkarte horiei, hezkuntza, kultur zein kirol jarduerak gauzatu ditzaten. Horrez gain, ikastetxeak sustatuko du elkarteek ikastetxearen bizitzan parte hartzea. Hori guztia egingo da ikastetxeko azpiegiturak kontuan izanik, eta eginbehar akademikoari kalte egin barik.

4. artikulua. Koordinazio didaktikorako organoak

CIFP ZORNOTZA LHIIIn, koordinazio didaktikorako organoak izango dira klaustroaren zuzendaritzapean: koordinaziorako komisio teknikoa, familia-profesionalen mintegiak, Informazio eta Orientazio profesionaleko departamentua, tutoreak, zein, talde, etapa eta zikloetako irakasleak.

5. artikulua. Aginte-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio didaktikorako organoen jardunaren oinarriak

1. Ikastetxeko aginte-organoez, partaidetza-organoez eta koordinazio didaktikorako organoez bermatuko dute ikastetxeko jarduerak indarrean dagoen araudiak ezarritako printzipio eta baloreen arabera egiten direla.

2. Horrez gain, aginte-organoez, partaidetza-organoez eta koordinazio didaktikorako organoez bermatuko dute, bakoitzak bere eskumen-esparruan, ikasleen, irakasleen, ikasleen legezko ordezkariak eta administrazioeko nahiz zerbitzuetako langileen eskubideak betetzen direla. Era berean, organo horiek guztiek euren betebeharrak ea betetzen dituzten ikuskatuko dute.

3. Aurreko puntuan aipatutako organoez, bestalde, euren gan izango dute hezkuntza-komunitateko kide guztiek ikastetxeko bizitzan, ikastetxearen kudeaketan, nahiz ikastetxearen ebaluaketan, eraginkortasunez parte hartu ahal izatearen ardura.

4. Irakasleekin, PEIekin, ikasleekin eta Ikastetxeko beste pertsonalarekin komunikazioa, legeak araututakoez gain, dauden telekomunikazioen bitartez egingo da; hau da, intranet, web orria, ikastetxeko posta-komunikazio sistema, iragarki-taularekin, eta interesgarriak izan daitezkeen beste baliabide batzuekin.

II. KAPITULUA. GOVERNURAKO KIDE ANITZEKO ORGANOA

I. ATALA. CIFP ZORNOTZA LHIIko KONTSEILU SOZIALA

6. artikulua. CIFP ZORNOTZA LHIIko Kontseilu Sozialaren ezaugarriak eta osaera.

1. CIFP ZORNOTZA LHIIko Gobernuan parte hartzen duten hezkuntza-komunitateko kide ezberdinen eta gizartearen organo nagusia, Kontseilu Soziala da. Izendapen legez, Kontseilu Soziala hartuko du.

2. Kontseilu Sozialaren eskuduntzak.

CIFP ZORNOTZA LHIIk, araudiak Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuei emandako eskuduntzak ditu, eta, era berean, indarrean dagoen araudiak ezarritako beste eskuduntzak ere.

3. CIFP ZORNOTZA LHIIko Kontseilu Soziala, eskubide osoa duten 12 kidez osotuta dago, eta ondorengo antolamenduarekin:

- a) Zuzendaria; presidente bera izango delarik.
- b) Hezkuntzaren arloan eskuduntza duen sailaren ordezkari bat (1).
- c) Enpleguaren arloan eskuduntza duen sailaren ordezkari bat (1).
- d) Ikastetxea menpean duen sailarena (1).
- e) Hezkuntza komunitatearen lau (4) ordezkari: bi (2) irakasleek hautatutakoak, bat (1) administrazio eta zerbitzuetako langileek hautatutakoa, bat (1) adinez nagusi diren ikasleek hautatutakoa.
- f) Gizarte-eragileetako lau (4) ordezkari: bi (2) enpresa-erakundeetatik, eta bi (2) sindikatu-erakundeetatik. Sindikatu-erakundeei dagokienez, ordezkariak dituztenen artean, Euskal Autonomia-Erkidegoan ordezkari kopuru handienak dituztenak izango dira partaide. Erakunde hauetariko bateren batek ordezkariarik izendatu ezik, edo ordezkariak Kontseilu Sozialeko batzarretatik sarri alde eginez gero, haren hutsunea, ordezkari kopuru handienak dituzten beste erakundeetako ordezkari batekin beteko da. Ordezkari honen hautaketa, ordezkari gehien dituztenetatik ordezkari gutxien dituztenen arteko ordena jarraituz egingo da.
- g) Ikastetxeko idazkaria. Kontseilu Sozialeko idazkari izango da. Hitza izango du, baina botorik ez.

7. artikulua.- OOG hautestea eta berritzea

Kontseilu Sozialeko partaideen aukeraketa eta berritzea ezarrita dagoen araudiaren arabera gauzatuko da.

8. artikulua. Presidentea eta idazkaria aldatzea

1. Zuzendaria kanpoan bada, alboko zuzendaria izango da ikastetxeko buru. Ikastetxean alboko zuzendaririk ez badago, ikastetxeko zuzendari ikasketaburua izango da edo, hala badagokio, antzinatasunik handien duen ikastetxeko Kontseilu Sozialeko irakaslea.

2. Idazkariorderik egon ezean, ikastetxeko Kontseilu Sozialako irakasle berrienak hartuko du idazkariaren lekua. Pertsona horrek, irakasle den aldetik, botoa emateko eskubidea izaten jarraituko du.

3. Hala eta guztiz, beste araudi erregulatzaile bat indarrean egonez gero, hor ezarritakoari egingo zaio jaramon.

9. artikulua. Kontseilu Sozialaren funtzionamendu-erregimena

1. Kontseilu Sozialaren bilerak kide guztiak bertaratu ahal diren orduan eta egunean egingo dira. Zuzendariak bileraren deialdia bidaliko die Kontseilu Sozialako kideei. Deialdiarekin batera, honako hauek helaraziko dizkie: bileraren gai-zerrenda; eztabaidagai izango diren dokumentuak; eta, hala badagokio, onespena. Kideek, beraz, bilera egin baino astebete lehenago jasoko dituzte agiri horiek guztiak.

2. Ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduz aitzin dei egiten badira. Hala gerta daiteke, premiaz landu behar den auzirik badago.

3. Kontseilu Soziala hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez. Kontseilu Soziala bilduko da zuzendariak hala eskatzen duenean edo Kontseilu Sozialako kideen heren batek hala nahi duenean. Edonola ere, ikasturtearen hasieran eta amaieran bilera bana egin beharko ditu nahitaez. Kontseilu Sozialako kide guztiek derrigor joan beharko dute Kontseilu Sozialaren bileretara.

4. Kontseilu Sozialak gehiengo soilez hartuko ditu akordioak, kasu hauetan izan ezik:

a) Hezkuntza-proiektua, Plan Exekutiboa, eta AJA nahiz AJAren aldaketak onetsi behar direnean. Horiek guztiak gehiengo osoz onartuko dira.

b) Zuzendaria berriz izendatzeko proposamena onetsi behar denean. Proposamen hori bi hereneko gehiengoaz onetsiko da.

5. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren Kontseilu Sozialari buruzko auziak ebazteko, Administrazio-jardunbidearen Legeko II. Tituluko 2. kapituluan ezarritakoa beteko da.

10. artikulua. Kontseilu Sozialako batzordeak

1. Kontseilu Sozialak gai espezifikotarako batzordeak eratu ditzake. Batzorde horiek, sortze hitzarmenean hitzartutako forma eta eskumenak izateaz gain, euren eskuduntzetako azterketak, txostenak eta proposamenak egin ahal izango dituzte.

11. artikulua. Kontseilu Sozialaren eginkizunak

a) Ikastetxeko Proiektu Estrategikoa (Ikastetxeko Proiektu Funtzionala) egiteko ildoak ezartzea.

b) Aurrekontua eta urteko balantzea onartzea.

- c) Proiektu Estrategikoaren, Plan Exekutiboaren eta ikastetxeko ekintzen jarraipena egitea, zerbitzu horien kalitatea, efikazia zein eraginkortasuna ziurtatuta.
- d) Ikastetxeko zuzendaria izendatu aurretik txostena ematea.
- e) Zuzendariaren proposamenaren arabera, irakasle adituen zerbitzuak kontratatzeko proposamena onartzea.
- f) Proiektu Estrategikoaren eta Plan Exekutiboaren garapena gauzatu dadin, enpresekin, erakundeekin eta entitateekin lankidetzatza sustatzea.
- g) Ikastetxeko titularrak esleitu diezaioken beste edozein.

II. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA

12. artikulua. Irakasleen klaustroaren ezaugarriak eta osaera

1. Irakasleen klaustroa, CIFP ZORNOTZA LHIIko aginte-organoetako bat izateaz gain, irakasleen berezko parte hartze organoa da, eta ondorengo zereginak ditu:

- a) Zuzendaritza taldeari eta Kontseilu Sozialari Ikastetxeko Proiektu Funtzionala (Proiektu Estrategikoa) lantzeko proposamenak egitea.
- b) Curriculum-proiektuak eta programazio didaktikoak onartzea.
- c) Ikasleria ebaluatzeko irizpideak ezartzea eta koordinatzea.
- d) Berrikuntza nahiz hezkuntza-kalitate arloan ekintzak proposatzea.
- e) Klaustrokideen formakuntza bultzatzea.
- f) Ikastetxeko zuzendaria izendatu aurretik txostena ematea.
- g) Ikastetxeko titularrak esleitu diezaioken beste edozein.

2. Klaustroak zuzendaria izango du buru eta ikastetxean irakasle aritzen diren guztiek osatuko dute. CIFP ZORNOTZA LHIIko idazkaria klaustroko idazkari izango da ere.

3. Zuzendaria eta alboko zuzendaria egon ezean, ikasketaburua izango da klaustroko buru. Eta ikasketaburua ere ez balego, antzinateasunik handiena duen irakaslea izango da klaustroko buru. Idazkaririk egon ezean, aitzitik, irakasleetan berrienak beteko ditu idazkariaren funtzioak.

13. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu-erregimena

1. Klaustroa hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez, zuzendariak deialdia egin edo klaustroa osatzen duten kideen gutxienez heren batek hala eskatzen badu. Horrez gain, bi bilkura egin beharko dira nahitaez: ikasturtearen hasieran bat eta amaieran beste bat.

2. Klaustroko kide guztiek derrigor joan beharko dute klaustroaren bileretara.

3. Ohiko bileretarako deia bilera baino astebete lehenago egingo da gutxienez. Salbuespen moduan, ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduko aurrerapenaz egiten badira. Hala egin daiteke premiaz landu behar den auziren bat badago.

4. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren auziak ebazteko, Herri Administrazioen Araubidean eta Administrazioako Prozedura Erkidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluan ezarritakoari jarraituko dio klaustroak.

14. artikulua. Klaustroaren eskumenak

Klaustroari, apirilaren 1ko 46/2014 Dekretuaren 18. artikulua emandako ardurak dagozkio, baita indarrean dauden beste xedapenak ere.

III. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA

15. artikulua. Zuzendaritza taldea

1. Zuzendaritza taldeak, apirilaren 1ko 46/2014 Dekretuaren 18. artikulua emandako ardurak izango ditu; baita, bere eskumenen alorrean, Kontseilu Sozialak edo klaustroak uzten dizkionak ere.

2. Zuzendaritza taldeak, egoki baderitzo, hezkuntza-komunitateko zeinahi kide gonbidatu dezake bere bileretara aholkuak eman ditzan. Era berean, egoki deritzon funtzioak ikastetxeko irakasleen esku utz ditzake; edota, proiektu zehatzez arduratzen diren irakasleen esku ere.

3. CFP ZORNOTZA LHIn, pertsona bakarreko organo hauek osatuko dute zuzendaritza taldea:

- Zuzendaria.
- Alboko zuzendaria.
- Ikasketaburua.
- Idazkaria.
- Administratzailea.
- Jasangarritasunaren kudeaketaren arduraduna.
- Kudeaketa Integratuko Sistemaren arduraduna.
- Estrategia-zuzendaria.
- Operazio-zuzendaria.
- Berrikuntza-zuzendaria.
- Aldaketaren bultzatzailea.

III. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK

16. artikulua. Zuzendaria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako sailburuordeak izendatu eta kargutik kenduko du.

1. CIFP ZORNOTZA LHIIko zuzendaria ikastetxearen ordezkari izango da ondorio guztietarako. Zuzendaria, halaber, Hezkuntza Administrazioaren ordezkari da ikastetxean, eta ikastetxeko Taldeko Aginte-Organoen buru da.

2. Bere eskuduntzak eta eskumenak dira apirilaren 1ko 46/2014 Dekretuaren 18. artikulua, Euskal Erkidego Autonomoan Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuei ezarritakoak.

17. artikulua. Ikasketaburua

Ikasketaburuak, zuzendaritza taldeko kide den aldetik, dituen eskumenez gain apirilaren 1ko 46/2014 Dekretuaren 19. artikulua, Euskal Erkidego Autonomoan Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuei ezarritakoak izango ditu.

Ikasketaburua, zuzendariaren agintepean, irakasleen buru izango da erregimen akademikoarekin zerikusia duten auzi guztietan.

Horrez gain, departamentu-buruen eta tutoreen jarduna koordinatuko du.

18. artikulua. Idazkaria

Idazkariak, zuzendaritza-taldeko kide gisa dagozkion eskumenez gain, 46/2014 Dekretuaren 20. artikulua, apirilaren 1koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak arautzen dituena.

19. artikulua. Administratzailea

Administratzaileak, zuzendaritza taldeko kide denez, dituen eskumenez gain, apirilaren 1ko 46/2014 Dekretuaren 21. artikulua, Euskal Erkidego Autonomoan Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuei ezarritakoak izango ditu. Zuzendariaren agintepean aurrekontuaren betetzea kudeatuko du, baita, ikastetxeko Plan Exekutiboak dituen ekonomia-gestioaren beste arlo batzuk ere eta zentroko administrazio eta zerbitzuetako langileen buru izango da.

20. artikulua. Pertsona bakarreko aginte-organismoak izendatzea eta kargua uztea

Pertsona bakarreko aginte-organismoak izendatzeko eta izendatuek kargutik kentzeko proposamenak, apirilaren 1ko 46/2014 Dekretuaren 16. artikulua, Euskal Erkidego Autonomoan Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuei buruz dionaren arabera egingo da; baita, arauzko beste xedapenetan aurreikusitakoa beteta ere.

21. artikulua. Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzeari

1. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixorik badago, alboko zuzendaria arduratuko da haren eginkizunez behin-behinean, eta, halakorik ezean, ikasketaburua.
2. Ikasketaburua ez badago edo gaixorik badago, zuzendariak izendatzen duen irakasleak hartuko ditu behin-behinean haren eginkizunak. Zuzendariak bere erabakiaren berri emango die Klaustroari eta Gizarte Kontseiluari.
3. Era berean, idazkaria kanpoan bada edo gaixo badago, eta ikastetxean idazkariorderik ez badago, zuzendariak izendatu duen irakasleak beteko ditu idazkariaren funtzioak. Zuzendariak bere erabakiaren berri emango die Klaustroari eta Kontseilu Sozialari.
4. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, alboko zuzendaria edo ikasketaburua jarduneko zuzendari izango dira. Jarduneko zuzendariaren eskumen berak izango ditu, baita artikulua honetako 2. eta 3. paragrafoetan jaso direnak ere.

22. artikulua. Pertsona bakarreko beste kargu batzuk.

15. artikuluan aipatutako zuzendaritza taldeko pertsona bakarreko gainontzeko karguez gain beste hainbat kargu ere izango dira ikastetxeak ezarritako proiektuen arduradun izango direnak. Kargu guzti horien eginkizunak kudeaketa-sistemaren "Langileen kudeaketa" atalean deskribatzen dira.

IV. KAPITULUA. IRAKASKUNTZA KOORDINATZEKO ORGANOAK

23. artikulua. CIFP ZORNOTZA LHIIko koordinazio-organoak

CIFP ZORNOTZA LHIIIn, irakaskuntza arloari dagozkion koordinazio-organo hauek egongo dira:

- a) Urtero, ikasturtearen antolaketari buruz Lanbide Heziketako Sailburuordearen ebazpenak ezarritako lanbide-familiak eta zeharkako departamentuak.
- b) Koordinazio teknikorako batzordea (Zuzendaritza + Mintegi buruak)
- c) Tutoreak.
- d) Taldeko, zikloko edota etapako irakasle taldeak.

I. ATALA. LANBIDE-FAMILIA ETA ZEHARKAKO DEPARTAMENTUAK

24. artikulua. Departamentuen ezaugarriak eta osaera

1. Departamentuak arloen, irakasgaien eta moduluen irakaskuntza antolatzeaz eta garatzeaz arduratzen diren organoak dira. Departamentu-buruaren zuzendaritzapean, departamentuek arlo edo irakasgai bera ematen duten irakasleak koordinatuko dituzte, baita antzeko arloak edo irakasgaiak ematen dituzten irakasleak ere. Departamentuko partaide guztiek eragin zuzena dute taldekideen egitekoarekin, eta taldean betetzen lanarekin.

2. Irakasle guztiak astean ordubetez bildu beharko dira departamentuaren ohiko bilerak egiteko. Aipatu berri duguna baztertu gabe, departamentuko kide guztiak bildu beharko dira departamentu-buruak beharrezkotzat jotzen badu batzartzea, edo departamentuko kideen heren batek batzarra egitea eskatzen badu.

3. Irakasleek zein Departamentutan parte hartu behar duten zehazteko, kontuan izango da asteko beraien ordutegiko ordurik gehien zer arlo, irakasgai edo moduluri ematen igarotzen duten. Irakasle batek bi Departamenturi edo gehiagori dagozkion irakasgaiak ematen baditu, ordu gehien ematen dituen irakasgaiaren departamentura atxikiko da; hala ere, berak irakasten dituen gainerako irakasgaien departamentuen bileretara bertaratu ahal izango da, baita, bertan egiten diren lanetan eta hartzen diren erabakietan parte hartu ere.

4. Moduluak, arloak edo irakasgaiak Departamenturen batera atxikita ez badaude, edo hainbat departamentutako irakasleek eman baditzakete eta, horrez gainera, indarreko arauak ez badute ezartzen zer departamentutara atxiki, ikastetxeko zuzendariak –koordinazio pedagogikorako batzordeak hala proposatuz gero– arloan aipatutako irakaskuntzak departamentu batera atxikiko ditu. Departamentu-buruaren zuzendaritzapean, hurrengo artikuluan aipatzen diren jarduera guztiak egin eta auzi guztiak ebatzi beharko ditu, betiere, goian aipatutako moduluen, arloen eta irakasgaien inguruan suertatzen direnak.

25. artikulua. Departamentu eta departamentu-buruen funtzioak eta eskumenak.

Departamentu eta departamentu-buruek euren gain hartuko dituzte urtero ezarri zaizkien zereginak, Lanbide Heziketako Sailburuordeak emandako ebazpenean oinarrituta.

26. artikulua. CIFP ZORNOTZA LHIIko didaktika-departamentu edo Departamentuen kopurua eta izena

Ikasturtearen antolamenduari buruz, Lanbide Heziketako Sailburuordeak emandako ebazpenean oinarrituta, CIFP ZORNOTZA LHIIIn ondorengo departamentuak daude eratuta:

- a) Elektromekanikako Departamentua (Instalazioa eta Mantenua).
- b) Soldadurako Departamentua (Fabrikazio mekanikoa).
- c) Informatikako Departamentua (Informatika eta komunikazioak).
- d) Merkataritzako Departamentua (Merkataritza eta marketina).
- e) Osasungintzako Departamentua (Osasungintza).
- f) LPO/Ingeles Departamentua (Zeharkakoa).
- g) Orientazio mintegia

- h) Transformazio digitalerakomintegia
- i) Operatiba mintegia
- j) Estrategia mintegia
- k) Berrikuntza mintegia
- l) Kudeaketa eta kalitate-sistemako mintegia
- m) Nazioartekotze mintegia
- n) Enplegurako prestakuntza mintegia

27. artikulua. Departamentuetako buruak izendatzea

1. Zuzendariak departamentuetako buruak hautatuko ditu urtero ikastetxeko irakasleen artetik. Departamentu-buruak hautatu aurretik, zuzendariak audientzia egin beharko die. Zuzendariak, dena den, kategoria akademikoaren nahiz espezialitatearen irizpideak errespetatuko ditu beti.
2. Ezin izango da izendatu zuzendaritza-karguren bat duen departamentuburua, maila akademiko goragokoa izan arren, antolamendu-izaerako salbuespenetan izan ezik.
3. Departamentuko buruak, departamentuko bileretara deitu eta bilera horien buru izateaz gain, departamentuaren jarduerak zuzendu eta koordinatuko ditu. Bere funtzioak, apirilaren 1ko 46/2014 Dekretuaren 26.3 Artikuluak Euskal Erkidego Autonomoan Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuei buruz dionaren arabera izango dira; baita, ikasturte hasierako ebazpenean, nahiz arauzko beste xedapenetan aurreikusitakoak ere.

II. ATALA. KOORDINAZIORAKO BATZORDE TEKNIKOA

28. artikulua. Batzordearen osaera

CIFP ZORNOTZA LHIIIn Koordinaziorako batzorde Tekniko bat egongo da. Batzorde hori, buru izango duen zuzendariak, ikasketaburuak eta departamentu-buruek osatuko dute. Departamentu-bururik gazteena izango da bertako idazkari.

29. artikulua. Batzordearen eskumenak

1. Batzordea, irakasleen klaustroko batzorde bat da. Batzordearen funtzio nagusia curriculum-proiektua eta proiektuari egin dakizkiokeen aldaketak koordinatzea izango da.
2. Egiteko hori betetzeko, jarraian aipatuko ditugun eskumenak izango ditu; betiere, irakasleen klaustroaren zaintzapean egonik (46/2014 dekretua):
 - a) Ikastetxearen urteko plangintza estrategikoa eta horren aldaketak eta memoria egiteko eta aplikatzeko proposamenak egitea.

- b) Curriculum-proiektuak, programazio didaktikoak eta tutoretza-plana lantzeko, horien jarraipena egiteko eta ebaluatzeko jarraibide orokorrak ezartzea.
- c) Klaustroko kideak prestatzeko eta eguneratzeko ekintzak onartzea.
- d) Ikastetxearen funtzionamendurako beharrezko ekipamendua eta materiala erostea onartzea.
- e) Ebaluazio horien ondorioz, ikastetxeko jardueren barne- eta kanpo-ebaluazioa sustatzea eta horretan laguntzea, eta hobekuntza-planak bultzatzea.
- f) Ikastetxeko zuzendaritzak esleitzen dion beste edozein.

III. ATALA. TUTOREAK ETA IKASLE TALDEEN IRAKASLEAK

30. artikulua. Tutoretza eta tutoreak izendatzea

1. Tutore izatea eta ikasleak orientatzea irakasleen berezko funtzio dira.
2. CIFP ZORNOTZA LHIIko ikasle talde bakoitzak bere tutorea izango du.
3. Zuzendariak izendatuko du talde bakoitzeko tutorea. Horrela, ikasketabuaren proposamena kontuan harturik, ikasleei eskola ematen dien irakasleetako bat aukeratuko du, betiere, ikasturtea antolatzeari buruz Lanbide Heziketako Sailburuordearen ebazpenean jaso diren jarraibideekin bat etorritz.
4. Ikasketaburuak tutoreen lana koordinatuko du eta, aldian aldiro, beharrezkoak diren bilerak egingo ditu tutoretzek egoki funtziona dezaten.

31. artikulua. Tutoreen funtzioak

Tutoreek ikasturtero euren gain hartuko dituzte ikasturtea antolatzeari buruzko ebazpenean esleitu zaizkien funtzioak eta atazak.

32. artikulua. Talde bateko irakasleen erregimena eta osaera

Zuzendaritza-taldeak irakasle-taldeak antolatu behar ditu, eta irakasleak beren jardueri atxikitzeko irizpideak erabaki, ikasturte bakoitzaren hasieran, Plan Exekutiboan betetzen duela eta araudiak irakasleei egokitzen dizkien espezialitateak errespetatzen dituela bermatuta.

Irakasleek emango dituzten ezarritako graduetakoko moduluak esleitzerakoan, espezialitate eta sail espezifikoko bereko irakasleen artean moduluak eta taldeak banatzeko akordiorik ez dagoenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide-Heziketako ikastetxe publiko integratuen ikasturteko antolamenduari buruzkoa Lanbide-Heziketako sailburuordearen ebazpenan ezarritakoari jarraituko zaio. 1. Ikasle talde berari eskolak ematen dizkieten irakasleek talde bat osatuko dute, eta talde hori ikasle taldearen tutoreak koordinatuko du.

2. Ikasle taldearen irakasleak ebaluazioari buruzko araudietan ezarritakoaren arabera bilduko dira. Era berean, ikasle taldeko tutorearen eskaririk izanez gero, ikasketaburuak egingo du bilerarako deia.

33. artikulua. Ikasle taldeko irakasleen funtzioak

Ikasle taldearen irakasleek funtzio hauek izango dituzte:

- a) Taldeko ikasleen ebaluazio eta segimendu orokorra egitea, bai ikastetxean bai lantokian Dual orokorreko lan prestakuntza egiten ari diren epean. Horretarako, ikasleen ikaskuntza hobetzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dituzte, betiere, ebaluazioari buruzko legeetan ezarri diren baldintzei jarraiki.
- b) Taldeko bizikidetzeta-giroa hobetzeko beharrezkoak diren jarduerak ezartzea.
- c) Taldearen baitan sortzen diren gatazkak modu koordinatuan lantzea, eta gatazka horiek ebazteko neurririk egokienak ezartzea.
- d) Taldeko ikasleei proposatzen zaizkien ikaskuntza/irakaskuntza-jarduerak koordinatuta egon daitezela bermatzea.
- e) Taldeko ikasle bakoitzaren legezko ordekariei ematen zaien informazioa ezagutzea eta infomrazio hori lantzen parte hartzea.
- f) Ikastetxearen barne-araubideko erregelamenduak ezartzen duen beste edozein.

V. KAPITULUA. PARTAIDETZA-ORGANO ESPEZIFIKOAK

I. ATALA. IKASLEEK PARTE HARTZEKO ORGANO ESPEZIFIKOAK

34. artikulua. Partaidetza-organo espezifikoak

Kontseilu Sozialaren bitartez hezkuntza-komunitate osoak parte hartzeaz gain, ikasleek euren elkarte eta organo espezifikoekin izan daitezke partaide.

35. artikulua. Ikasleek parte hartzeko organo espezifikoak

CIFP ZORNOTZA LHIn badira ikasleek parte hartzeko bi organo berezi: batetik, taldeko nahiz mailako ordezkariak eta, bestetik, ordezkarien batzarra.

36. artikulua. Taldeko ordezkariak

1. Ikasturtearen lehenengo hilabetean eta ikasturte osorako, ikasle talde bakoitzak bere ordezkaria aukeratuko du, zuzeneko eta isilpeko bozketaren bidez. Ordezkari hautetsi hori ikasleen Ordezkarien Batzordeko kide izango da. Ordezkariorde bat ere aukeratuko da. Ordezkariordeak ordezkariaren lekua hartuko du hura kanpoan denean edo gaixo dagoenean. Ordezkariordeak, halaber, laguntza eskainiko dio ordezkariari.

2. Ikasturteko ordezkariak eta ordezkariordeak aukeratzeko deialdia ikasketaburuak egingo du eta berak erabakiko ditu bozketarako arauak, beti ere artikuluko honetako 3. atalean zehaztutakoa errespetatuz, eta taldeetako tutoreekin nahiz Kontseilu Sozialean ikasleen ordezkari direnekin elkarlanean.

3. Edonola ere, taldeko ikasle guztiak izango dira hautesle eta hautagai, kandidaturarik aurkeztu beharrik gabe. Bozketan, ikasle bakoitzak izen bat jarriko du boto-txartelean. Botorik gehien jaso duen ikaslea ordezkari izango da, eta boto gehien jaso dituen bigarrena, aldiz, ordezkariorde. Berdinketarik izanez gero, ikasleen ordezkari hautetsietan zaharrena izango da eta ordezkariorde hurrengoa.

4. Ordezkariak eta ordezkariordeak ezeztatu ahal izango dira, baina horretarako alde zuretik tutoreari txosten arrazoitua bidaliko zaio. Txosten horrek, ordezkaria zein ordezkariordea aukeratu zuten ikasleen gehiengo absolutuaren onespina izan behar du. Kasu horretan, hauteskunde berrietarako deialdia egingo da, hamabost eguneko epean eta aurreko atalean adierazitakoa kontuan hartuta. Onartu diren dimisioen kasuan modu berean jardungo da.

5. Ordezkariak ezin izango dira zigortu araudi honen arabera, bete beharreko funtzioak bete egin dituztelako.

37. artikulua. Taldeko ordezkarien funtzioak

Hauek dira taldeko ordezkarien funtzioak:

- a) Ordezkarien Batzordearen bileretara joatea eta eztabaidetan parte hartzea.
- b) Aginte-organoei eta koordinazio didaktikorako organoei, ordezkatzeko duten taldearen iradokizunak eta kexak helaraztea.
- c) Bizikidetzaren sustatzea ikasturteko ikasleen artean.
- d) Ordezkatzeko duten taldearen funtzionamenduaren gain eragina duten gaiak tutorearekin eta gainerako irakasleekin batera lantzea.
- e) Irakasleekin eta ikastetxearen aginte-organoekin batera ikastetxearen funtzionamendu egokiaren alde lan egitea.
- f) Ikastetxeko materiala eta instalazioak behar bezala erabiliak izan daitezen zaintzea.
- g) Ikastetxeko aginte-organoei, beren eskumenen barruan esleitutako gainerako funtzioak.

38. artikulua. Ordezkarien Batzordearen eraketa eta jardueraren araudia

1. Irakasleek ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko duten organoak, EEPLren 30. artikuluan aipatzen denak, ikasleen Ordezkarien Batzordea du izena.

2. CIFP ZORNOTZA LHIIan ikasleen Ordezkarien Batzordea egongo da. Batzorde hori osatuko dute, batetik, taldeetako irakasleek libreki hautatu dituzten ordezkariak eta, bestetik, ikastetxeko Kontseilu Sozialean ikasleen ordezkari legez aritzen direnak.

3. Ordezkarien Batzordeak funtzionamendurako bere arauak landuko ditu. Ikasketaburuak onartu ondoren, arau horiek indarrean sartuko dira, eta, arau horiek baztertuko dira, lege ezarritako arau baten

aurka badoaz, Araudi honetako legeen aurka badoaz, edo ikasleen eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideen edo betebeharren aurka badoaz.

4. Edonola ere, ikastetxeko ikasleen artean dagoen aniztasuna eta Ordezkarien Batzordearen eraginkortasuna zaindu beharko dira.

5. Zuzendariak Ordezkarien Batzordeari bere bilerak egiteko leku egoki bat utziko dio, baita behar bezala funtzionatzeko behar dituen bitartekoak ere.

6. Ordezkarien Batzordeko kideek, beren funtzioak betetzean, Kontseilu Sozialaren bilkuretako aktak kontsulta ditzakete, baita ikastetxeko administrazio-mailako beste edozein agiri ere, kasu batean izan ezik: dokumentazio jakin bat erabili edo hedatzearen ondorioz, pertsonen intimitatearen aurka doanean.

39. artikulua. Ordezkarien Batzordearen funtzioak

Hauek dira Ordezkarien Batzordearen funtzioak:

- a) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Plan Exekutiboa eta Urteko Memoria lantzeko proposamenak, baita eskola jardunaldia antolatzeakoak ere, zuzendaritza taldearen esku uztea.
- b) Kontseilu Sozialako ikasleen ordezkariari aholkularitza eta laguntza eskaintzea, baita talde edo ikasturte bakoitzak dituen arazoei buruzko informazioa ematea ere.
- c) Kontseilu Sozialako ikasleen ordezkarien aldetik informazioa jasotzea, kontseilu horretan landutako gai-zerrendari buruz, modu eraginkorrean aztertutako gaiei buruz, baita bertan hartutako akordioei buruz.
- d) Kontseilu Sozialerako txostenak egitea; bai ikasleen Ordezkarien Batzordearen berezko ekimenez, baita Kontseilu Sozialak hala eskatuta.
- e) AJA aldatzeko proposamenak egitea, beren eskumenen barruan.
- f) Ordezkarien Batzordearen jardueri buruzko informazioa ikasleei ematea.
- g) Ikastetxean jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko proposamenak egitea.
- h) Enpresetan praktikak egiteko hitzarmenei buruzko informazioa ematea, hitzarmenik egonez gero, eta horien jarraipenean parte hartzea.
- i) Ikasleengan eragin zuzena izan dezakeen beste edozein jarduera edo erabaki.

II. TITULUA. BIZIKIDETZARAKO ARAUAK

I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

40. artikulua. Bizikidetzaren oinarriak

CIFP ZORNOTZA LHIIaren ustez, bizikidetzaren bermatzeko, batetik, hezkuntza komunitate osoak ikasleen eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu ezinbestean eta, bestetik, ikasleek beren eskubideak eta eginkizunak arduraz bete behar dituzte, Titulu honetan ezartzen denarekin bat etorritik.

41. artikulua. Bizikidetzaren plana

CIFP ZORNOTZA LHIIak bizikidetzaren plana idatziko du (ikus eranskina), Hezkuntza Sailak xedatzen duenarekin bat etorritik. Bizikidetzaren helburu nagusia bizikidetzaren gerta daitezkeen gatazkak prebenitzea da. Gatazkarik gertatuz gero, eurak nola ebatzi aurreikusiko da. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bitartez, aukerako zenbait bide ezarri ziren hainbat jarduerara eta neurri aplikatzeko; beraz, gatazkak ebazteko, aipatu berri dugun Dekretuaren bidez ezarri ziren neurriak aplikatuko dira. Horrez gain, beharrezko balitz, bitartekaritza-prozedurak ere erabili daitezke.

42. artikulua. Eskubideen berehalako babesa

Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 6. artikulutik 21. artikulura bitartean jaso diren eskubideak izango dituzte. Irakasleren batek ikusten badu ikasleren baten jokabidea arestian aipaturiko eskubideen kontra doala, edo eskubide horiek betetzea galarazten duela, esku hartu beharko du berehala. Jokabide okerra izan duen ikaslea ahoz ohartarazi beharko du eta, ondoren, ikasketaburuarengana edo zuzendari operatiboarengana joateko agindu.

43. artikulua. Betebeharrak betetzeko bermea

Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 21. artikulutik 27. artikulura bitartean jaso diren betebeharrak bete beharko dituzte. Irakasleren batek ikusi badu ikasleak ez dituela bere betebeharrak bete, haren jokabidea zuzendu beharko du berehala. Horrez gain, irakasleak uste badu ikasleak bere jokabideaz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideak urratu dituela, ikasketaburuarengana edo zuzendari operatiboarengana joatea aginduko dio.

44. artikulua Ikasleen ez bertaratzea

Testuingurua:

Ikasleen Betebehar eta Eskubideen Aginduaren arabera, hezkuntza ez-unibertsitarioan klasera etortzea derrigorrezkoa da. Moduloetako programazioarekin bat etorritik, ikasleek klaseetan egindako lana ebaluaketarako beste neurgailu bat izango da. Klasera ez bertaratzeak, beraz, ikaslearen errendimendu akademikoan eragina izango du, eta ebaluaketa ez gaituztekarik ezar ezazake, ebaluazio jarraituan duen

eragin zuzena dela medio. Irakasle guztiek dute ikasleek beren eskoletara egiten dituzten hutsegiteak kontrolatzeko ardura, bai eta taldeetako tutoreei egiten diren hutsegiteen berri emateko erantzukizuna ere.

Ikasle adingabeen familiei eta legezko tutoreei ikasleen hutsegiteen berri ematerako Hezkuntza Saileko hutsegiteak erregistratzeko aplikazioa erabiliko da. Era orokorrean astebeteko epearen barruan jakinaraziko dira ez bertaratzeak; edonola ere, jarraipen zehatzagoa eskatzen duten ikasleen kasuetan egunean bertan egingo da hutsegitearen erregistroa eta horren bitartez notifikazioa ere.

DUAL orokorreko ez bertaratzeak duten ondorioei dagokienez, Lanbide Heziketako sailburuordetzako Prestakuntza dual erregimen orokorra antolatzeko Plangintza eta Antolaketa zuzendariaren jarraibideei jarraituz jokatu da. Jarraibide horiek ez balute berariaz ezer adieraziko, enpresa edo erakunde parekatutako prestakuntza egiten ari den zikloko curriculumaren parte den heinean, esleitutako enpresara ez joatea zentroan emateari utziko dioten moduluetara ez joatetzat hartuko litzateke, eta ez bertaratzei buruzko araudi orokorra aplikatuko litzateke.

Ondorioa:

Modulu batean bertaratzea %80 baino txikiagoa denean (izandako justifikatutako zein ez justifikatutako ez bertaratzeak kontuan izada), ikasleek ebaluazio jarraiturako eskubidea galduko dute. Ehuneko hori moduluen ordu-kopuru osoarekin kalkulatu da.

Hutsegiteak honako kasu hauetan justifikatu dira:

- a) Astebete baino gehiago luzatzen den gaixotasuna izanez gero; iraupen hori medikoki justifikatuta.
- b) Behar-beharrezkoak diren administrazio-egoerak sortuz gero; beti ere, egoera horiek ondo frogatuta baldin badaude.
- c) Heziketa-Zikloarekin zerikusia duen lana egiteagatik; lan hori zehatz ziurtatuta egonez gero (lan-kontratua eta enpresako ziurtagiria).
- d) Indarrean dauden hitzarmenak edo goi-mailako akordioak dituzten erlijio-konfesioetakoa izanez gero.

Ikasle batek ebaluazio jarraituaren eskubidea galdu arren, dagozkion gela-jarduera guztietan parte hartzeko eskubidea dauka; baita, azken ebaluazioko lehen eta bigarren deialdietako azterketetara (ohiko eta ez ohiko deialdietako azterketetara LOGSE zikloetan) aurkeztekoa ere.

Prozedura:

Hutsegiteen %20rekin, irakasleak ebaluazio jarraiturako eskubidea galdu izanaren jakinarazpena bidaliko die ikaslearen legezko tutoreei Hezigunea plataformaren bitartez, eta jakinarazpenaren kopia emango dio tutoreari.

Ebaluazio jarraiturako eskubidea galtzearen behin betiko jakinarazpena bere esku eman ahal izango zaio interesdunari:

1. Ikaslea bera familiaburua edo legezko tutorea denean.
2. 18 urtetik gorako ikasleen kasuan.

Kasu horietan, irakasleak jakinarazpenaren kopia bat gordeko du, interesdunak sinatuta.

Errebokazioa:

Tutoreak ebaluazio jarraiatuaren eskubidea galdu duten ikasleen erregistroa egingo du. Kasu batzuetan, eta goian adierazitako a, b, c eta d puntuak kontuan hartuta, irakasle-taldeak ikaslearen egoera aztertuko du eta Ikasketa Burutzari bidali ahalko dio ebaluazio jarraiatuaren eskubidea galtzea errebokatze proposamena. Txosten honen behin betiko ebazpena Ikasketa Burutzak emango du.

II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA

45. artikulua. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea

CIFP ZORNOTZA LHIIko irakasle guztiek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez ikasleei aitortu zaizkien eskubideak babesten lagunduko dute. Horretarako, araudi honetan eta aginte-organoen jarraibideetan zehaztutakoari jarraituko diote.

46. artikulua. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea

1. Tutorek nahiz gainerako irakasleek hautematen badute ikasleren bat tratu txarrak jasotzen ari dela edo, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 7.2 eta 7.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik haurren bat arriskuan edo babesik gabe dagoela, hain zuzen, jakinaren gainean jarriko dute ikasketaburua edo zuzendaria.

2. Irakasleek gisa bereko pertsonen arteko tratu txarrak prebenitu edo, behinik behin, ahalik eta lasterren hauteman behar dituzte. Tratu txarren arrastorik antzemanaz gero, zuzendaritza taldea berehala jarriko du jakinaren gainean; gero, dagozkien protokoloak aplikatu ahal izateko.

47. artikulua. Ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea

1. Irakasleek nahiz hezkuntza-komunitateko gainerako kideek beraien ondra, intimitatea eta irudi propioa babestuta izateko eskubidea dute. Horrenbestez, CIFP ZORNOTZA LHIIko aginte-organoei, tutoreei eta irakasle guztiei babestu beharko dute ikasleen nahiz hezkuntza-komunitateko kideen eskubide hori. Zuzendaritza taldeak zenbait arau proposatuko dizkio Kontseilu Sozialari grabatzeko tresnen, sakelako

telefonoen eta, oro har, teknologia berrien erabilerari buruz. Kontseilu Sozialak, bere aldetik, proposatutako arau horiek onartu ala ez onartu aztertuko du. Aipatutako arau horien bidez, ikasgelan grabazioak egitea, argazkiak ateratzea, eta sakelako telefonoa erabiltzea galarazita egongo da.

2. Ikasgelatik kanpo –hau da, eraikinean edo eskola-barrutian– aipatu berri ditugun baliabideak erabiltzea baimentzen bada, egoki izan daitezkeen muga guztiak proposatu daitezke. Batera zein bestera, debekaturik egongo da hezkuntza-komunitateko kideren bati bere baimenik gabe argazkiak ateratzea edo filmatzea. Debekatuta egongo da, era berean, hezkuntza-komunitateko kidearen baimenaz atera den argazkia edo egin den grabazioa bere borondaterik gabe erabiltzea.

Gailu adimendunen erabilera

Gela barruan ezingo dira erabili eta bistan izan mugikorrak edo bestelako gailu adimendunak. Horiek soilik irakasleak eskatzen duenean erabili ahalko dira, eta erabiltzean erabilera egokia eman beharko zaie. Arau hau bete ezean, arau hausteak jarriko ditu dagokion irakasleak.

48. artikulua. Biltzeko eskubidea

CIFP ZORNOTZA LHIIko aginte-organismoek ziurtatuko dute biltzeko eskubidea –Legeak ikasleei aitortzen diena– modu eraginkorrean gauzatzen dela. Biltzeko eskubidearekin erlazionatutako alderdi guztiak zainduko dituzte. Alde horretatik, biltzeko eskubidea gauzatzea hezkuntza-helburuarekin bat datorrela eta adinez txikikoen babeserako Legeak ezartzen dituen aginduekin bat datorrela bermatuko da. Horretarako, pertsona bakarreko aginte-organismoek paragrafo hauetan zehazten dena hartuko dute kontuan:

- a) Taldeak gelan bil daitezke ikasketei buruzko gaiak lantzeko, eskolarik galdu gabe, aldez aurretik tutoreari jakinaraziz. Hala badagokio, tutorea bileran izango da. Horrez gain, hilean behin eskola-ordutan bil daitezke, ordubetez gehienez ere. Horretarako, tutoreari gai-zerrenda jakinarazi behar diote aldez aurretik. Bilera horietan taldetik kanpoko ikaslerik ezin izango da egon. Tutorea ez badago, bilera horien buru eta moderatzaile taldeko ikasleen ordezkaria izango da.
- b) Zuzendariak adieraziko du Ordezkarien Batzordeak zer lekutan egingo duen bilera. Horretarako, Araudi honetako 38.2 artikuluan aipatzen den eta funtzionamendurako arauak aurreikusten duten bileretarako araudiari jarraituko zaio.
- c) Ordezkarien Batzordeak, egoki jotzen duenean, ikasle ordezkariak kontsulta egitea erabaki dezake. Horretarako, Ordezkarien Batzordeak Ikasketaburuari baimena eskatuko dio, eta horrek, gai-zerrenda irakurri ondoren eta bertako gaiak Ordezkarien Batzordearen eskumenekin duten egokitzapen-mailaren arabera, baimena emango du ala ez du emango. Horrez gain,

aurreko bileretan gai-zerrenda errespetatu ez bada, baimena ukatu dezake. Ikasketaburuaren erabakiaren aurka erreklamazioa aurkez daiteke zuzendariaren aurrean.

- d) Bileren deialdia ikasle guztiei jakinaraziko zaie ikasleen ordezkarien bitartez, bileraren aurreko egunean. Gai-zerrendaren berri ere emango zaie. Bileretara joatea ez da derrigorrezkoa izango.
- e) Ikasketaburuak, zuzendariaren agintepean, bilera non eta noiz egin erabakiko du. Hasiera batean eskola-ordutegitik kanpo egingo da. Horretarako, ikasketaburuak eskolen ordutegia alda dezake, eskolen iraupena murriztu gabe.
- f) Hala ere, Kontseilu Soziala osatzen duten hiru sektoreek –ikasleek, gurasoek eta irakasleek–, gehiengo erlatiboaren bidez onesten badute, ikasketaburuak eskolen iraupena murriztuko du bilerak ordubete iraun dezan. Horretarako bileran aztertuko diren gai kopurua eta gaien izaera kontuan hartuko dira. Eskola-ordutegia murrizten bada, eta erabakia bileraren bezperan hartzen bada, eta irakasle guztiei jakinarazten bazaie murriztapena eskola guztien artean banatuko da. Aitzitik, erabakia bilera egingo den egunean bertan hartzen bada, bilera egiten den atsedenaldirduaren aurreko eta ondorengo eskolak bakarrik murriztuko dira.

49. artikulua. Taldeak eskoletara ez agertzeari buruzko arauak

Batzartzeko eskubidea betetze aldera, eskubide hori betetzearen ondorioz ikasle talde bat derrigorrezko eskoletara edo bestelako jardueretara huts egitea, ez da jokabide okertzat hartuko. Jarrera horiek ezingo dira zuzendu, betiere, ondoren aipatuko duguna betetzen bada:

- a) Eskoletara ez agertzeko proposamena ikastetxeko Ordezkarien Batzordeak hartuko du hasiera batean, bere ekimenez edota ikastetxean matrikulatuta dauden ikasle guztien edo legez aitortzen diren elkarteetako, federazioetako edo konfederazioetako ordezkarien %5ak hala eskatzen badu. Hortaz, alde aurretik azaltzen diren ondorengo alderdi hauek eztabaidatu beharko dira:
 - Deialdiaren hezkuntza edo prestakuntza-helburua.
 - Deialdiak ikastetxearekin duen lotura.
 - Ikasle guztiek gaia euretara hausnartzeko duten denbora.
 - Aurretik egindako beste deialdiak, edo aurrerantzean egingo direnak.
- b) Ordezkarien batzordeak proposamena onartzen badu, deialdia idatzi egingo da, artikulua honen a) atalean adierazitako alderdiei dagokienez arrazoituta eta deitzaileak, datak, orduak eta programatutako jarduerak adierazita, gutxienez bi egun balioudun lehenago, salbu eta, salbuespen gisa, deitzaileek ikasketa-buruaren aurrean justifikatutako premiazko arrazoiak daudenean.

- c) Horrela idatzitako deialdia ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko zaio, eta horretarako izendatutako espazio eta lekuetan jarriko da.
- d) Ordezkarri bakoitzak bere taldeko ikasleei jakinaraziko die deialdia egin dela. Era berean, bozketa non eta noiz egingo den jakinaraziko du.
- e) Beharrezkoa izanez gero, hurrengo ikasturteko azken 10 minutuetan deialdia ikasturtez ikasturte eztabaidatzeko eskatuko zaio Zuzendaritzari, eta irakaslearen aurrean bozketa egingo da.
- f) Bozketaren emaitzak akta batean jasoko dira. Akta hori ordezkariak eta une horretan ikasgelan dagoen irakasleak sinatuko dute, eta ordezkarien bilerara eramango dira.
- g) Ordezkarien Batzordeak, Zuzendaritzaren aurrean, mota desberdinen emaitzak eta guztizkoen batura idatziko ditu.
- h) Bozketa amaitu ondoren, mahai bakoitzean botoak zenbatuko dira da. Emandako botoen batura, boto baliogabeak eta zuriak barne, ikastetxeko ikasle kopuruaren bi hereneko *quorum*era iristen ez bada, botazioak ez du baliorik izango, eta ezin izango da deialdi berdinerako beste botaziorik egin. Beraz, deialdia besterik gabe baztertuko da.
- i) Bozketaren emaitza baliozko izan dadin, quorum hau beharrezkoa da: ikastetxeko ikasleen bi heren. Quorum nahikoaz ikasketaburuaren proposamena onartua izanez gero, azken horrek ikasleek hartutako erabakia deialdiarekin batera jarriko du ikusgai. Emaitza ez da inoiz loteslea izango, eta ikasleek eskolara joateko duten eskubidea gauza dezakete. Nolanahi ere, deialdi onetsiari jarraiki, eskoletara ez azaltzea ez da jokabide okertzat hartuko; eta ez da jarrera hori zuzentzeko neurririk ezarriko.
- j) Irakasleek beren eskolak eman behar dituzte, bertaratutako ikasle-kopurua edozein dela ere, eta, egoki iritziz gero, ordu horri dagokion ikasgaia azaldutzat jo behar dute, nahiz eta ikasgelan ikaslerik ez egon.
- k) Greba alde aurretik ezarritako azterketaren batekin batera egiten bada, azterketa hori egitea errespetatuko da.

50. artikulua. Idatzizko adierazpen askatasunaren eskubidea betetzea

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 14. artikulua ikasleei aitortzen dien adierazpen askatasunaren eskubidea gauzatzeko:

- a) Zuzendariak –edo, haren ordezkariak, ikasketaburuak– arautuko ditu eskubide hori gauzatzeko modua, espazioak eta lekuak. Edozein kasutan, erakundeekiko eta hezkuntza-komunitateko kideenganako errespetua kontuan hartu beharko da.

b) Edonola ere, informazioa jendeari helarazteko dauden lekuetan eta espazioetan jartzen diren abisu guztietan, abisu horien erantzule den pertsonaren, erakundearen, elkartearen zein taldearen izena agertuko da.

c) Gelen barruan eskolako jardueri buruzko informazioa bakarrik jar daiteke.

2. Aipatutako arauak errespetatzen ez dituzten informazioak kendu egingo dira, zuzendariaren edo ikasketaburuaren aginduari jaramon eginez.

III. KAPITULUA. BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEAK

51. artikulua. Printzipio orokorra

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebeharrak ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebeharrak ez betezea, gutxienez, jokabide okertzat hartuko da beti. Hutsegite hori, halaber, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide edo bizikidetzaren kontrako jokabide izan daiteke, baldin eta, haren bidez, hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betezea galarazten bazaie, edota, hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira.

2. Betebeharrak bete ez direla ikusten duen irakasleak parte hartu beharko du derrigor. Horrenbestez, bizikidetzarekin bat ez datorren jokabidea zuzendu beharko du; betiere, arestian aipaturiko Dekretuan nahiz araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

52. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak

Ahalik eta lasterren zuzendu behar dira 201/2008 Dekretuak okertzat jo dituen jokabide guztiak, baita, bizikidetzaren kontrakoak edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak. Ahal izanez gero, neurri zuzentzaileak; hau da, zuzendu beharreko jokabidearen ondorioztat har daitezkeenak, bideratu beharreko jokabidearekin lotura izan behar dute.

53. artikulua. Jokabide desegokiak

1. Jokabide desegokitzat hartuko dira. arestian aipaturiko Dekretuaren 30. artikuluan aipatu direnak.

2. CIFP ZORNOTZA LHIn, ikasle batek izan ditzakeen jokabide desegokiak zuzenduko ditu une horretan bere irakasle denak. Baldintza hau, arestian aipatutako Dekretuan dago jasota.

3. Ikasketaburuak edo zuzendari operatiboak ezarriko du jarraitu beharreko prozedura. Prozedura hori indarrean dauden arauekin bat etorriko da beti. Era berean, jokabidea zuzentzeko ahozko ohartarazpena baino zerbait gehiago aplikatu behar bada, halaxe jakinarazi beharko zaio ikaslearen tutoreari.

54. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 31. artikuluan aipatzen direnak dira.

2. Bizikidetzaren aurkako jokabideren bat ikusten duen edozein irakaslek ahoz ohartaraziko dio jokabide horren ardura duen ikasleari, ikasketaburuaren edo zuzendaritza operatiboaren aurrean edo haren ordezkorearen aurrean aurkezteko aginduko dio, eta gertakarien berri emango dio, bai eta berehala zuzentzeko bere esku-hartzearen berri ere, ikasketaburuak, zuzendariarekin adostuta, zehaztutako prozeduraren arabera.

55. artikulua. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak

1. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 32. artikuluan aipatzen direnak dira.

2. Bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidearen lekuko izan den irakasleak, lehenik, ahoz ohartaraziko du bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidearen arduradun den ikasleari. Ondoren, ikasketaburuarengana edo zuzendaritza operatiboarengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraituta, gertakarien nahiz jokabide okerra zuzentzeko egin duen ekintzaren berri emango du irakasleak berehala.

56. artikulua. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko prozedura

Ikastetxean zein lantokian Dual orokorreko lan prestakuntza egiten ari diren epean bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan aurreikusi dena aplikatuko da. Gatazka ebazteko, 201/2008 Dekretuko III. kapituluari aurreikusi diren aukerako bideak erabili behar dira.

III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA

57. artikulua. Printzipio orokorrak

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, eta ikasleek beren errendimendu akademikoa objektiboki ebaluatua izateko duten eskubidea bermatzeko, titulu honetan ezarri den berme-sistema ezarriko da. Sistema horrek ondoko printzipio hauek ditu oinarritzat: publizitatea, informazioa eta gardentasuna. Aipatu berri dugun sistemaren bidez, bidenabar, ikasleek azken notaren aurrean erreklamazioak egiteko aukera izango dute.

58. artikulua. Publizitatea

1. Ikasleek nahiz legezko haien ordezkariak Ikastetxeko Curriculum Proiektua eskuratzeko duten eskubidea bermatu beharko du ikasketaburuak. Ikasleen eta beren ordezkoen eskura egongo den Proiektuan ondoko hauek ageri behar dira: arlo edo irakasgai bakoitzaren helburuak, edukiak eta eurretan landuko diren oinarritzko gaitasunak.

2. Ikasketaburuak, halaber, bermatu beharko du didaktika-departamentuek eta irakasleek publiko egiten dituztela arloak edo irakasgaiak gainditzeko eskatuko diren gutxieneko edukiak. Baita bermatu beharko du ebaluazio-prozedurak nahiz irizpide aplikagarriak eta berreskuratzeak egiteko nahiz laguntza eskaintzeko aurreikusi diren prozedurak ere publikatu direla.

59. artikulua. Ikasle eta legezko tutoreentzako informazioa

1. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasleen eta ikasleen legezko ordezkarien arteko komunikazioa bitarteko arin eta egonkorren bidez gauzatuko dela. Zaindu behar du, halaber, ikasleen gurasoek edota ikasleen legezko ordezkariak irakaskuntzako eta ikaskuntzako jardueri nahiz eskola-errendimenduari buruzko informazio osoa jasotzen dutela.

2. Tutorearen betebeharrak bazter utzi gabe, irakasleek ezin diote uko egin ikasleei edo ikasleen legezko ordezkariari aurreko puntuan aipatutako alderdi orori buruz eskatzen duten informazio osoa emateari. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasle guztiek eginbehar hori betetzen dutela.

3. Ikasketaburuak ziurtatu behar du ikasleen irakasle-tutoreak beren taldeko ikasleen legezko tutoreekin urtean behin bilduko direla. Bermatu beharko du, halaber, ikasleen gurasoen heren batek baino gehiagok eskatzen dituen bilerak egiten direla. Bilera horietan, goian aipaturiko alderdiak landuko dira, baita, alderdi horiek nola betetzen dituzten taldeko ikasleek esan ere.

4. Aurreko paragrafoetan aipatutako prozeduren bidez eman daitekeen informazioa gorabehera, tutoreak, egoki irizten badiote, bilera horietan adostutako informazioa jakinaraziko diete ikasleen legezko ordezkariari, ebaluazio-saioetarako ICPn ezartzen den gutxieneko maiztasun berarekin, eta hartzailerek informazioa benetan jasotzen dutela ziurtatzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte.

5. Era berean, zikloko eta ikasturteko amaierako saioen ondoriozko informazioa helaraziko du. Informazio horrek, gainera, hartutako mailaz igotzeko edo irauteko erabakia arrazoitu beharko du, eta tutoreak idatziko ditu, irakasle-taldeak eztabaidatu ondoren, kontuan hartuta, hala badagokio, ikasleak programatutako helburuak lortu ez dituen arlo edo ikasgai bakoitzeko irakasleen proposamenak edo txostenak. Txosten horiek ikastetxean egongo dira, eta hurrengo zikloko edo ikasturteko irakaskuntza-eta ikaskuntza-prozesua bideratuko dute, irakasleek ikasgelako programazioak horretara egokitzekeo abiapuntua izan daitezten.

60. artikulua. Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea

1. Ikasleek eta, hala egokituz gero legezko ordezkariak, ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute. Behin ariketa guztiak zuzenduta eta nota jarrita, aipatu dokumentuen errebisioa egiteko eskubidea izango dute.

2. Orokorrean, ahozko eskabideek ahozko erantzuna jasoko dute eta, idatzizko eskabideek, idatzizko erantzuna.

3. Zuzenketa amaitutzat jotzeko ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa azaltzea; horrez gain, egindako akatsak edo hutsegiteak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adierazi beharko da.

61. artikulua. Ariketa zehatzei jarritako kalifikazioen aurrean erreklamazioak egitea

Ikasleek edo legezko beren ordezkariak, kalifikazioak jaso eta bi eskola-egun igaro aurretik ahoz aurkez ditzakete alegazioak, eta egindako lanak edo probak berraztertzea eskatu ere. Alegazioak edo eskabideak irakasleari aurkeztuko zaizkio. Irakasleak, egoki baderitzo, didaktika-departamentuari aholkua eska diezaioke auzia ebazteko. Horretarako kontuan izango du curriculum ofizialaz eta IIPz gain, didaktika-departamentu ezberdinek landutako programazioekin, ikasgelan erabilitako programazioekin, eta argitara eman diren kalifikazio-irizpideekin lotura dutela.

62. artikulua. Ebaluazio partzialen aurrean erreklamazioak egitea

1. Ikasleek, idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, irakaslearen aurrean ebaluazio-aldi bakoitzari dagozkion erreklamazioak egin ditzakete. Dagozkion irakasleak erreklamazio guztiei erantzun beharko die; idatziz. Horretarako, aurreko artikulua azken paragrafoan zehaztutakoa hartu beharko du kontuan.

2. Erreklamazioa ezesten den kasuetan, ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, lan-arloko departamentuaren esku-hartzea eska dezakete. Lan-arloko departamentuak, proposatutako azterketa programazioarekin bat ote datorren egiaztatuko du, baita, departamentuan erabakitako irizpideak zuzen ezarri ote diren ere. Eta, erreklamazioa egin duen ikasleari, ahoz edo idatziz; hau da, erreklamazioa egin den modu berean, erantzungo dio.

63. artikulua. Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea

1. Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskola-garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean.

2. Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko dira bai erreklamazioan aipatu diren ariketak, baita ikasleak edo erreklamatzailerak aldarrikatzen duen kalifikazio bera izan duten ikasleen ariketak ere.

3. Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan izan beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egin daitezkeen kasuetan.

64. artikulua. Azken kalifikazioei buruzko erreklamazioa

- a) Kalifikazioak formalki eman eta 48 orduko epean, ikasleek erreklamazioa egin ahal izango dute idazkaritzan aurkeztutako idazki baten bidez, ikasketaburuari zuzenduta. Idazki horretan argi eta garbi adieraziko da zein kalifikazioaren aurka eskatzen den, zein kalifikaziotarako eskubidea duela uste duen ikasleak, eta bere ustez zer arrazoik justifikatzen duten erreklamazioa.
- b) Ikasketaburuak dagokion lanbide-arloko departamentuari aurkeztuko dio erreklamazioa, eta didaktika-sailak aztertuko du proposatutako probak onartutako gaiaren programaziora egokitzen diren eta adostutako ebaluazio-irizpideak behar bezala aplikatzen diren. Ebazpenean, irakasleak emandako kalifikazioarekin ados egon daiteke edo ez, eta kontuan hartu beharko dira antzeko baldintzetan egon daitezkeen gainerako ikasleei emandako kalifikazioak.
- c) Azken ebaluazioen aurkako erreklamazioen kasuan, ezin izango da kalifikazio negatiborik mantendu, ikasgelako ahozko esku-hartzeetan soilik oinarrituta, behar bezala dokumentatuta geratu direnean izan ezik.
- d) Sailaren erabakia erreklamazioa idatziz aurkeztu eta gehienez ere bi eguneko epean hartu beharko da.

65. artikulua. Lan-arloko departamentuak hartutako erabakiaren ondorioak

1. Lan-arloko departamentuak bere erabakiaren berri emango dio ikasketaburuari. Azken horrek interesatuari helaraziko dio departamentuaren erabakia.

2. Ikaslearen erreklamazioa balioesten bada, ikasketaburuak haren berri emango dio zuzendariari. Zuzendariak, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.

3. Erreklamazioa onartu ez eta ikaslea, oraindik ere, erabakiarekin konforme ez badago, erreklamazio-idatzia jarri dezake zuzendariaren aurrean. Zuzendariak, kasu horretan, Hezkuntza-administrazioari helaraziko dio ikaslearen erreklamazioa, eta erakunde horrek hartu beharko du erabakia.

Zuzendariak Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren aurrean aurkeztuko ditu erreklamazioaren froga, programazioarekin lotutako Departamentuko dokumentazioa, eskatutako maila zein ebaluazio irizpideak, eta erreklamazio-prozesuan ikastetxean erabilitako dokumentazio guztia.

AMAIERAKO TITULUA. ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA ALDATZEA

65. artikulua. Antolakuntza eta Jarduera Araudia Aldatzeko Prozedura.

- a) Zuzendaritza Taldearena izango da inizatiba hartzeko ardura edo Klaustroarena, gutxienez irakasleen %20k eskatzen badu.
- b) Onartu baino lehen, proposatutako aldaketaren ondorioz kaltetuak izan litezkeen pertsoneri berri eman eta kontsulta egingo zaie.
- c) Kontseilu Soziala osotzen dutenen erdiak baino batek gehiagok behintzat baiezko botoa ematen badu, onartua izango da.

Amorebieta-Etxanon, 2024ko abenduaren 16an

Dokumentu hau CIFP ZORNOTZA LHIIren Kontseilu Sozialak onartu du, 2024ko abenduaren 16an egindako bileran.